



JUNTAS GENERALES DE ALAVA ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

11/1995 FORU ARAUA, MARTXOAREN 20KOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRI-BATZARREI BURUZKOA. (ALHAOko 38 zk., 1995ko martxoaren 31eko)

(Testu bateratua)

ARRAZOIEN AZALPENA

Arabako Lurralde Historikoko Herri-Batzarrek sustrai zaharrak dauzkate gure herrialdean eta, zalantzarik gabe, gure Erregimen Lokalaren bereizgarri nabarientako bat dira. Gaur egun, honelako 324 batzar dauzkagu oraindik; horrek argi uzten du nolako lotura handia duten zerbitzatzen dituzten gizataldeekin: izan ere, alde batetik, hiritarrak zuzenean ordezkatzeko dituzte denon ardurakoak diren arazoetan, eta, bestetik, hiritarrek eskatzen dituzten zerbitzu publikoak ematen dituzte, haiengandik hurbilago baitaude beste edozein erakunde baino.

Horretaz jabetuta, Foru Arau honek helburu garbia dauka: alegia, erakunde horien oinarrian dauden ohiturazko arau juridikoak gure egunotako konstituzionalismoarekin bat egin eta haren arabera egokitu, Zuzenbidearen ulerbide idatzi eta unibertsalizatuagoa emanaz.

Nolanahi ere, zenbait hutsune badaude oraindik ere, egokitzapen horren eta zuzeneko arautzearen ondorioz. Arrazoa argia da: Ordenamendu Juridiko Positiboak, mende honetan alor honi buruzko idatzitako hainbat xedapenen bidez osatuak (1924ko urriaren 21eko Erret Dekretua, Udal Estatutua euskal probintzietara moldatzeari buruzkoa; 1954ko abuztuaren 10eko Erret Dekretu-legea, Erregimen Lokala Arabara moldatzeari buruzkoa...), gure herrietako erakunde horien berezitasuna aitortu besterik ez baitzuen egin, erregimen juridikoa aspaldiko ohitura eta usadioen arabera utziz.

Gaurko egunean, behar-beharrezkoa da Herri-Batzarren "estatutu juridikoa" ahal den neurrian eta ahal bezain egoki bateratzea, halako arautze positibo baten bitartez, beraietan bete beharreko arau-legeak argitzeko, haien jarduera publikoa bete ahal izateko behar dituzten tresna juridikoak beren esku jartzeko, eta, batez ere, Konstituzioaren arabera arau berberak finkatzeko denentzat, Herri-Batzarreko bizilagunen segurtasun juridikoari begira.

Xedapen Orokor batzuk biltzen dira Foru Arau honen zortzi ataletako lehenengoan; bertan, Herri-Batzarra zer den adierazi, haren lurraldea, biztanleria eta antolakuntza zehaztu eta herrialdeko entitate lokalaren izaera aitortzen zaio.

Bigarren xedapenean, Herri-Batzarraren ahalmen eta eskumenak finkatzen dira; era berean, aurreko puntuaren ildo beretik jarraituz, herrialdeko entitateei dagozkien botere publikoak eta haien jarduera-maila mugatzen eta zehazten duten berezko interes multzoak ere aipatzen dira.

Erakunde hauen jarduera eta antolakuntza jasotzen da hirugarren atalean; bertan, lehendik ere bazeuden bi antolakerak bereizten dira, alegia Batzar Irekia eta Batzar Itxia. Gainera, atal horretan, Batzarrak osatzen dituzten sailak eta sail horietako bakoitzaren zereginak zehazten

dira xehetasun osoz, eta herri bakoitzeko usadio, ohitura eta tradizio egiaztagarriak nola beteko diren ere jasotzen da.

Arau honetako laugarren atalean, aldiz, Prozedura eta Erregimen juridikoaren barruan garrantzi handiena duten xedapenak Herri-Batzarretan nola bete adierazten da. Konstituzioak aginduta, prozedurak oinarrizkoak eta berdinak dira herri-administrazio guztientzat, eta horregatik Herri-Batzarren esparrura egokitu dira ahal izan den neurrian, baina horrek dokumentuak normaltzeko ahalegina eskatzen die, hiritarren segurtasun juridikoa handitu ahal izateko. Bestalde, erakunde hauen ekintza administratiboen eragina jasotzen duten pertsonen eskubideak ere argitu, eta batzarren ordenantza eta arauak publikoki jakinarazteko agindua indartzen da.

Bosgarren atalean, Herri-Batzarren Ogasunaz hitzegiten da, eta bertan entitate horiei dagozkien eskubide ekonomikoak aitortzen dira: besteak beste, Lurralde Historikoaren aurrekontuetan parte hartzea, Lurraldeko erakunde lokalak finantzatzeko oinarrien barruan. Orobat, ohiko "auzolana" ere jasotzen da, pertsona mailako zerbitzu bezala, Foru Aldundiaren eta batzarren ebazpenen barruan.

Seigarren atalean, ondasunen erregimenari buruzko arauak bildu eta Herri-Batzarretarako moldatzen dira; gainera, auzo-probetxamenduak, auzo-lurren goldaketa eta egur-loteak banatzeko baldintzen artean herrian bizi beharra ere jasota dago. Horri begira, onura horien banaketa suen arabera egiten da, ez pertsonen arabera, foru ohiturei jarraituz, hain zuzen ere herrietako bizitza suspertzeko eta herrietan bizi ohi diren auzokideen onerako.

Beste erakunde lokalekiko harremanak zazpigarren atalean jasota daude; haien bidez, batetik herri-batzarren artean eta, bestetik, herri-batzarren eta udalen artean elkarlana eta lankidetzaren egon beharra adierazten da, eta eskumenekin egon litezkeen arazoak konpontzeko bide bat finkatzen da.

Foru Arau honen azken atala, zortzigarrena alegia, Herri-Batzarren eraketa, aldaketa eta iraungipenari buruzkoa da; zertzelada horien guztien onespena Foru Arauen bidez egin behar da.

Esandako kasu horietarako behar diren prozedurazko bermeak finkatzen dira; besteak beste, aldatu edo desegiten diren herri-batzarren oinordetza, desegindako Herri-Batzarreko auzokideek aprobetxamenduez baliatzen jarraitu ahal izateko berme-erregimena, beti ere ondasunak ahal den neurrian kontserbatuz, desegindako Batzarra berriro eratuz gero haren esku jarrai dezaten.

Foru Arau honek gaurko Herri-Batzarren iraupena bultzatu nahi du, baina jasota geratzen da horiek aldatu edo desegin ahal izango direla baldin eta segidan egindako bi aukeraketan batzarreko sailak betetzen ez badira; izan ere, horrela, administrazio eta aginte sailen iraupena bermatzen da, edozein unetan horiek hauteskunde demokratikoei ekiteko aukera izan dezaten.

Xedapen gehigarri batean agindua ematen zaie Arabako Talde edo Koadrilei beraien barrutietako Herri-Batzarrekin elkarlanean aritzeko organuak prestatzeko, eta gauza berbera iradokitzen zaie udalei.

Foru Arauaren bukaeran, xedapen iragankor batzuk agertzen dira; lehenean, entitate lokalen finantzabidea oro har araupetzen ez den bitartean Lurralde Historikoak eman beharko duen dirulaguntzaz hitzegiten da; eta bigarrean, aldiz, Herri-Batzarrek beren ordenantzak onartu

arte, Foru Aldundiak, segurtasun juridikoa bermatzearren, finkatu beharko dituen ordenantza ereduez.

I. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Herri-Batzarrak zer diren.

1.- Arabako Lurralde Historikoko Herri-Batzarrak hiritarren partaidetzarako ohiko bide hurbila dira, eta burujabetasun osoa dute euren interesak eta haien oinarrietan dauden auzokide multzoenak gestionatzeko euren ahalmen berezien bitartez.

2.- Herri-Batzarrak Lurraldeko entitate lokal batzuk dira, nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena dutenak, eta udalerrria baino txikiagoa den barruti batean eskumena dutenak.

3.- Arabako Lurralde Historikoko Herri-Batzar guztiak ofizialki aitortutako udalerrietako batean kokaturik daude.

2. artikulua.- Nola osatuta dauden.

1.- Barrutia, biztanleria eta antolakuntza dira Herri-Batzarraren osagaiak.

2.- Herri-Batzarrak halako barruti batean betetzen ditu bere eskumenak; barruti horiek mugarri, ozka edo antzeko marken bidez mugatuta daude, eta marka horiek aldian-aldian egiaztatu behar dira ohiko moduan.

3.- Foru Arau honek dituen ondorioei begira, Herri-Batzarreko biztanleria honako biztanle eta auzokideek osatzen dute:

a.- Biztanleak: Herri-Batzarraren barrutian bizi eta gainera udal erroldan horrela inskribatuta dauden pertsonak.

b.- Auzokideak: udalaren edo herri-batzarraren erroldan inskribatuta egon ez arren Herri-Batzarraren barrutian etxe irekia duten pertsonak. Pertsona horiek ezingo dute ahotsik ez boto eskubiderik ere eduki Batzarrean, ez eta inolako kargurik ere haren barruan.

4.- Herri-Batzarra bi eratara antola daiteke: "Batzar Irekia" izanik edo "Batzar Itxia" izanik; bi kasuetan, Batzarburu bat edukiko dute eta, hari laguntzeko, Administrazio-batzordea ere.

3. artikulua.- Herri-Batzarraren errolda.

1.- Herri-Batzarraren barrutian urtean zazpi hilabetez gutxienez bizi eta etxe irekia duten biztanleak inskribatuta egongo dira Batzarraren erroldan.

2.- Urtean zazpi hilabetez gutxienez etxe ireki batean bizitzeko baldintza betetzen dela argi eta garbi ez badago, era honetan jokatu beharko da, baldintza betetzen dela onartu ahal izateko: dagokion auzokideak zinpeko adierazpena egin beharko du, eta barrutian bizi diren baina auzokide horrekin inolako ahaidetasunik ez duten beste bi lekukok eman beharko dute horren testigantza.

3.- Arabako Foru Aldundiak berak arautuko ditu Herri-Batzarren biztanle-errolden egitura, egunerapena eta gutxienezko edukina ere; errolda horiek Herri-Batzarrek berek osatu behar

dituzte dagozkien Udalen laguntzaz, eta beharrezko administrazio-ondorioetara eta ondasunen probetxamendura mugatuko da haien balioa. .

4.- Foru Arau honek dituen ondorioei begira, su deitzen zaie Herri-Batzarraren barrutian urtean zazpi hilabetez gutxienez etxe irekia duten eta sendikoren bat batzar-eroldan inskribatuta duten famili-unitateei.

4. artikulua.- Herri-Batzarren izena.

1.- Herri-Batzarren izen ofiziala jatorrizko euskal edo erdal izena izango da, beti ere hizkuntza bakoitzaren idazkera akademikoaren arabera idatzia.

2.- Herri-Batzarren izen ofiziala ipini, aldatu edo ordezkatzeko, honako pausu hauek bete beharko dira:

a) Herri-Batzarraren hasierako onespina eman.

b) Hilabetez, jendearentzat jakingai jarri Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean.

c) Foru Aldundiari jakinarazi.

d) Herri-Batzarrak betiko onespina eman.

3.- Izena aldatzen denean izen berria ofiziala izateko, Herri Batzarak betiko onespina eman, Arabako Entitate Lokalen Foru Erregistroan sartu eta Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eman beharko da argitara.

5. artikulua.- Ikurrak, armarriak eta zigilua.

1.- Herri-Batzarren ikur eta sinbolo bereizgarriak aukeratzeko, izen ofiziala ipintzeko aurreko artikuluan jarritako baldintza berberak bete behar dira.

2.- Armarria edukitzea erabakiz gero, haren osagaiak zertzelada historiko edo geografikoetan, Herri-Batzarraren beraren ezaugarrietan edo bere izenean oinarritu beharko dira. Bestalde, heraldikaren arauak bete beharko dira beti.

3.- Herri-Batzarraren zigiluan bere izenak gutxienez agertu beharko du, eta indarrean dauden legeen barruan, zigiluak argitasunaren baldintzak bete beharko ditu.

II. ATALA. AHALMEN ETA ESKUMENAK

6. artikulua.- Ahalmenak.

Legeen arabera, udalerrri mailaren azpiko barrutia duten entitate lokalei dagozkien ahalmenak daukate Arabako Herri-Batzarrek; besteak beste:

a.- Hartzen dituzten erabakiak legezkoak eta bete beharrekoak izatea.

b.- Arauak ipintzeko eta beren baitan antolatzeko ahalmena.

c.- Egitarau eta plangintzak egiteko ahalmena.

- d.- Ofizioz, beren ekintza eta erabakiak aldatzeko ahalmena.
- e.- Herri-Batzarraren ondasun eta eskubideak defenditzeko ahalmena, bai auzitegien bidez, bai bestela ere.
- f.- Hirigintza alorreko prozesuan parte hartzeko gaitasuna, indarrean dauden legeen barruan.
- g.- Beren barrutietan eragina duten hirigintza alorreko ekintzen berri eman eta jasotzeko gaitasuna.
- h.- Desjabetzapenak egiteko ahalmena.
- i.- Ofizioz, beren ondasunak aztertu, mugatu eta berreskuratzeko ahalmena.
- j.- Beren ondasun eta eskubideen bahituezintasuna, Legeetan finkatuta dagoen moduan.
- k.- Tributu eta finantza ahalmenak, beren zerga bereziak ipini ezin izanaren muga bakarrarekin.
- l.- Ogasun Publikoari bere kredituetarako aitortzen zaizkion lehentasunak eta bestelako prerrogatibak, beste administrazio publikoen ogasunei dagozkien kalterik gabe.
- m.- Bere lurraldean eragina duten hirigintzazko jarduerak behinbetirako onartu baino lehen Foru Aldundiari jakinarazteko gaitasuna.
- n.- Zigortzeko ahalmena, Legeek eta beren Ordenantza eta Araudietan finkatzen den moduan. (Otsailaren 9ko 4/2004 Foru Arauak gehitu zaio. ALHAOko 21 zk., 2004ko otsailaren 18ko)**

7. artikulua.- Eskumenak.

- 1.- Bete ditzaketen eskumenak Foru Arau honek aitortzen dituenak, eta legean arabera udalerrri mailaren azpiko barrutia duten erakunde lokalek dauzkatenak dira. Honako hauek, bereziki:
 - a.- Erakundearen jabetzakoak izanik, jendeak erabiltzen dituen instalazioak eraiki, handitu, kontserbatu eta konpontzea.
 - b.- Bide, mendi, iturriak eta Herri-Batzarraren ardurapean dauden erabilera publikoko beste ondasunak zaintzea.
 - c.- Bere ondarea (basoak barne) administratu, kontserbatu eta araupetzea.
 - d.- Herri-Batzarraren barrutian, interes berezia duten obrak programatu, prestatu eta burutzea eta bestelako zerbitzuak ematea.
- 2.- Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, halako ondare bat desjabetu, zergapetu edo trukatzeko, Herri-Batzarrek Arabako Foru Aldundiaren baimena behar izango dute, ondare horren balioa aurreko urteko dirusarrera ohikoen %25 baino handiagoa bada.

3.- Ondasun higiezinaren bat desjabetzen denean, Herri-Batzarrek Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko diote, dagozkion ondorioei begira.

8. artikulua.- Ordezkapenak.

1.- Herri-Batzarrek beste Herri-Batzarre, udalerrri, ermandade, koadrila eta bestelako entitate publikoen esku utzi ahal izango dituzte beren ahalmenak.

2.- Gainera, Herri-Batzarrek beste entitate publikoek haien esku utzitako ahalmenez baliatu ahal izango dute.

3.- Ordezkapena egiteko erabaki edo xedapenak argi azaldu beharko du noiz artekoa izango den, zein edukinekin eta zein baldintzatan egingo den, bai eta bere ahalmenak lagatzen dituen administrazioak nolako kontrola ezarriko duen ere, eta zein izango diren utziko dituen eskuarte pertsonal, material eta ekonomikoak.

4.- Ordezkapena baliozkoa izateko, eskumenak jasotzen dituen entitateak bere baimena eman beharko du.

III. ATALA.- HERRI-BATZARREN ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA

1. Kapitulua.- Herri-Batzar motak.

9. artikulua.-

Antolakuntz erregimenaren aldetik begiratuta, Arabako herri-batzarren artean honako hauek bereizten dira.

a) Herri-Batzar irekiak: agintea auzokide guztien batzarraren bidez eta administrazioa auzokideek hautatutako Administrazio-Batzar baten bidez egiten denean.

b) Herri-Batzar itxiak: agintea eta administrazioa Administrazio-batzordearen bidez egiten denean.

2. Kapitulua.- Aginte eta Administrazio sailak.

10. artikulua.-

1.- Biztanle kopuruak aukera ematen duenean, honako hauek izango dira Herri-Batzarren aginte eta administrazio sailak:

- Herri-Batzar irekiaren auzokide batzarra
- Batzarburua
- Administrazio-batzordea

2.- Herri-Batzar Itxiak Batzarburua eta Administrazio-batzordea eduki beharko dituzte gutxienez, eta Herri-Batzar Irekiak, Auzokideen Batzarra, aurreko sail horietaz gainera.

3.- Herri-Batzar guztiek Fede-Emalea eduki beharko dute nahitaez.

4.- Herri-Batzarrek, beste sail edo kargu batzuk ere izendatu ahal izango dituzte Foru Arau honek dioenaren ildotik, edota Herri-Batzarrarenak diren eta bere Ordenantza-Koadernoan jasota egon beharko duten usadio, ohitura eta tradizioen ildotik.

1. zatia. Herri-Batzar irekiko auzokideen batzarra.

11. artikulua.-

Auzokideen batzarra edo Herri-Batzar irekia erakundearen organorik gorena da, barrutiko auzokide helduek osatzen dute, eta Batzarburu batek zuzentzen du.

12. artikulua.-

Herri-Batzar irekiak indarrean dauden araei jarraituz bete beharko ditu bere ahalmenak; honako hauek, besteak beste:

- a) Herri-Batzarraren izen ofiziala eta ikurrak erabaki edo aldatzea.
- b) Obra, zerbitzu publiko eta hornigaien egitasmoak, baldintzak eta behin-betiko esleipenak programatu eta onartzea.
- c) Langileak kontratatzeko baldintza eta irizpideak erabaki eta onartzea, eta eman beharreko soldata eta ordainak finkatzea.
- d) Fede-emailea, diruzaina eta, beharra egonez gero, Herri-Batzar irekiaren ohiko beste kargu batzuk izendatzea.
- e) Auzolanak agintzea.
- f) Komunitatearen ondasun eta eskubideen inbentarioa onartzea.
- g) Beste erakundeekiko ahalmen-auziak planteatzea.
- h) Beste erakunde publikoekiko lankidetzan eta elkarlanean aritzeko hitzarmenak onartzea.
- i) Entitatea aldatu, desegin edo bere izaera aldatzeko ekimena.
- j) Kredituak aitortzea, aurrekontu-partidarik ez dagoenean, eta aurrekontuak, salbuespen-ordenantzak eta kontuen zentsura onartzea.
- k) Herri-Batzarraren ondasun eta eskubide bereziak administratu eta kontserbatzea.
- l) Kreditu-eragiketak hitzartzea.
- m) Administrazio eta auzi ekintzak burutzea.
- n) Herri-Batzarrak beste erakunde edo sail batzuetan parte hartzen badu, haren ordezkioak izendatzea.
- ñ) Jabetza publikoko ondasunen sailkapen juridikoa aldatzea, Foru Arau honetako VI. Atalean finkatutakoaren arabera.

- o) Herri-Batzarraren ondarea eskuratu edo besterenganatzea, eta haren ondasunen erabilera edo jabetasuna nola edo hala inoren esku uztea.
- p) Administrazio-Batzordeak edo Batzarburuak proposatuta, zigorrak ipintzea batzarraren ordenantzak edo arau orokorrak hausten direnean.
- q) Herri-Batzarraren errolda, haren aldaketak eta berriztapenak onartzea.
- r) Batzarburua eta Administrazio-Batzordea kontrolatu eta fiskalizatzea.
- s) Batzarkideek proposatzen dituzten ekinbide guztiak burutzea, beti ere Batzarraren ahalmenen barruan.
- t) Oro har, legeek, udalerrriaren administrazioari dagokionez, Udal Osoko Bilkurari ematen dizkioten ahalmenak, Batzarraren ahalmenen barruan.
- u) Batzarraren Ordenantzen onarketa.

2. zatia.- Batzarburua.

13. artikulua.-

Herri-Batzarraren burua edo Batzarburua pertsona bakarrak betetzen duen sail beterazlea da, Batzarraren legezko ordezkaria; Lurralde Historikoko Herri-Batzarrean Batzarburu eta Batzarkideen hautaketarako 1984ko uztailaren 30eko Foru Aruaren arabera aukeratzen da.

Batzarburua gaisorik edo batzarrean parte hartu ezinik egonez gero, lehen bokalak ordezkatu behar du.

14. artikulua.-

Honako betekizun hauek dagozkie Batzarburuari:

- a) Administrazio-Batzordearen eta Herri-Batzar irekiaren bileretarako deia egin, eta haietan buru izatea, haien eztabaidak zuzentzea eta botazioetan hainbanaketa gertatuz gero, bere kalitatezko botoaz erabakitzea.
- b) Batzar Irekiaren eta Administrazio-Batzordearen gai-zerrendak prestatu eta behar bezalako publizitatea ematea.
- c) Administrazio-Batzordearen eta Batzar Irekiaren erabakiak burutu eta betearaztea.
- d) Entitatearen aurrekontuaz baliatzea, ordainketak haren kontura eginez, eta gestioaren azalpenak ematea.
- e) Entitatearen ondarea zaintzea.
- f) Bide, iturri publiko eta mendiak zaintzea.
- g) Langileak kontratatzea, Batzar Irekiak edo Administrazio-batzordeak ipinitako irizpide, baldintza eta ordainen arabera.

- h) Herria, bere inguruak eta bere biziraupena zaintzea.
- i) Bandoak egitea.
- j) Premiazko kasuetan ekintza judizial eta administratiboak egitea, Batzar Irekiari haien berri emanez egiten den hurrengo bileran.
- k) Bere esparruan, Toki Erregimenaren Legeak udaletako alkateei ematen dizkien betekizunak, argi eta garbi betekizun horiek bakar-bakarrik alkatearen esku utzita ez daudenean.

3. zatia.- Administrazio-batzordea.

15. artikulua.-

- 1.- Batzar Irekietan, Administrazio-Batzordea administrazioaz arduratzen den saila da. Batzar Itxietan, aldiz, aginteaz eta administrazioaz arduratzen da.
- 2.- Bi kasuetan, Batzarburuari lagundu egingo dio, atal honetan jasota dagoen moduan.
- 3.- Administrazio-Batzordearen hautapena eta osaketa Arabako Lurralde Historikokoaren Kontzejuen Batzarburu eta Batzarkideen Hautapenari buruzko 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauan xedatuta dagoen moduan araututa daude.

16. artikulua.-

Honako hauek dira Administrazio-Batzordearen betekizunak:

- a) Obrak, zerbitzu publikoak eta hornigaiak kontratatzeko espedienteak bideratzea.
- b) Entitatearen ondasun eta eskubideen inbentarioa osatu eta eguneratuta edukitzea.
- c) Beste erakunde publikoekiko lankidetzan eta elkarlanean aritzeko hitzarmenak proposatzea.
- d) Entitatearen urte bakoitzerako aurrekontuen eta ordainerazpenen ordenantzen egitasmoa prestatzea.
- e) Batzar Irekiaren kasuan, Batzarrari urteko kontuak eta kitapenak aurkeztea.
- f) Batzarraren Ordenantzen proiektuak prestatzea.
- g) Batzarraren Ordenantzak edo Xedapen Orokorrak hausten dituztenak zigortzeko espedienteak bideratzea, Batzarrari ebazpen-proposamena eginez.
- h) Herri-Batzarraren barrutiko biztanle-errola osatu eta eguneratzea.
- i) Batzar Irekiaren kasuan, oro har, dagozkion erabaki-proposamenak egitea Batzarrari.

2.- Gainera, Batzar Itxien kasuan, Administrazio-Batzordeak aurreko zatian adierazi ditugun betekizunak ez ezik, Batzar Irekiko Auzokideen Batzarraren esku utzitakoak ere -Foru Arau honetako 12. artikuluan aipatuta daudenak, alegia- edukiko ditu.

4. zatia.- Fede-Emailea.

17. artikulua.-

1.- Fede-Emaileak idazkari lanak egingo ditu, bai Auzokideen Batzarrean, bai Administrazio-Batzordean, eta Batzarraren Ordenantzetan eta horiek eduki ezean Foru Arau honetan araututako moduan hautatua izango da.

2.- Batzar itxietan, fede-emailea ezingo da Administrazio-Batzordeko kide izan, eta batzar irekietan, ordea, ezingo da Batzarburu izan.

3.- Artikulu honetako I. puntuan xedatutakoaren bidetik, Fede-emailea behar bezala frogatuta gaisorik edo joan ezinik egonez gero, bere ordezkari bat izendatuko da bitarte horretan fede-emaile titularren eginkizun eta ardurak betetzeko.

18. artikulua.-

Fede-emaileak honako eginkizunak bete behar ditu:

- a) Auzokideen batzarraren eta Administrazio-Batzordearen bileretara derrigorrez joan.
- b) Joaten den bileretako batzar-agiria osatu eta fede ematea.
- c) Ziurtagiriak egitea.
- d) Herri-Batzarraren ordenantza, agiri, espedienteak eta akta-liburua zaintzea.

3. Kapituluak.- Jarduera erregimena

19. artikulua.- Jarduera erregimen orokorra.

Herri-Batzarraren sailek Foru Arau honetako aginduen arabera moldatuko dute euren jarduera, edota, bestela, berezko dituen eta Batzarraren Ordenantzen Koadernoan jasota egon beharko duten usadio, ohitura eta tradizioen arabera.

20. artikulua.- Bilerak.

1.- Batzar Irekietako auzokideen batzarra ohiko lekuan bildu behar da. Gutxienez, hiru hilabetez behin egin behar du ohiko bilera, eta horretarako dagokion deia egin behar du bertan ohi den moduan, bilerako gai-zerrenda zehaztuz eta, beti ere, bilerarako deia publikitate bermatuz.

2.- Bilerako lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda idatziz iragarri behar da bilera egin baino 48 ordu lehenago gutxienez; horretarako, dagokion ediktua ipini beharko da ikusgai entitatea osatzen duten biziguneetako iragarki-tauletan.

3.- Administrazio-Batzordeek gutxienez hiru hilabetez behin bildu behar dute, eta horretarako, Batzarburuak bilera hasi baino 48 ordu lehenago behintzat egin behar du deialdia, zuzenean bilerako gai-zerrenda ere zehaztuz.

4.- Biziguneren batean ordenantzarik egon ezean, Batzarburuak, azertu gabe dauden gaiekin eta deialdia baino lehenago idatziz aurkeztutakoekin osatu behar du bilerako gai-zerrenda.

21. artikulua.- Quoruma.-

1.- Aurreko artikuluan aipatu diren batzar-organuak lehen deialdian balio osoz eratzekotan, gutxienez eskubide osoko partaideen erdiak eta beste batek bertaratu beharko dute, eta beti ere Batzarburuak, Administrazio-batzordeko bokal batek eta Fede-emaileak edo haien legezko ordezkoez egon beharko dute bertan.

2.- Bigarren deialdia, aldiz, ordu erdi geroago egin behar da, eta Administrazio-batzordea balio osoz eratzekotan, gutxienez Batzarburuak, Administrazio-Batzordeko kide batek, Fede-emaileak eta, Herri-Batzar Irekiko auzokideen batzarraren kasuan, auzokide batek behintzat bertaratu beharko dute.

22. artikulua.- Bilerarako deialdi berezia.

1.- Herri-Batzarreko, Administrazio-Batzordeko edo haien organuren bateko eskubide osoko partaideetatik herenak behintzat idatziz eskatuz gero, Batzarburuak bilera-deialdia egin behar izango du, eta bilera hori eskabidea jaso ondorengo egunetik hasi eta hurrengo zazpi egunen barruan egin beharko da.

2.- Proposatzen diren aztergaiak adierazi beharko dira aurreko lerroaldian esandako eskabidean, eta Batzarburuak derrigorrez sartu beharko ditu dagokion bilkurarako gai-zerrendan.

4. Kapituluak.- Gehiengoaren Erregimena.

23. artikulua.- Gehiengoaren erregimena.

1.- Oro har, bileretara joaten diren partaideen arteko gehiengo soilak erabakitzen duenaren arabera hartu behar dira Batzarren akordioak. Gehiengo soilak egon ahal izateko, baiezko botoek ezezkoek baino gehiago izan behar dute.

2.- Bileretara joandako partaideen arteko hirutik biren botua behar da, honako erabaki hauek hartu ahal izateko:

- a) Herri-Batzarra desegin, beste batean sartu edota beste batetik banatzeko, eta haren izaera aldatzeko.
- b) Herri-Batzarraren izena eta kokagunea aldatzeko.
- c) Erakundearen Arautegia onartu eta aldatzeko.
- d) Zerbitzu-ermandadeak eta haien estatutuak sortu, aldatu, desegiteko edota erakundean sartzeko.
- e) Entitatearen betekizunak beste administrazio batzuek esku uzteko.
- f) Ondasunen aprobetxamendua beste inoren esku uzteko.

- g) Kreditu-eragiketak erabakitzeko.
- h) Tributu-baliabideak ezarri eta antolatzeko.
- i) Ondasunak desjabetu eta haien sailkapen juridikoa aldatzeko.
- j) Ondasunak beste administrazio edo erakunde publikoei dohan uzteko.
- k) Udalen ahalmenen antzera, haien barrutian gehiengo berezia behar duten gainontzeko gaietarako.
- l) Batzarren Ordenantzak onartzeko.
- m) Obrak, zerbitzu publikoak eta hornigaiak kontratatzeko baldintza-orriak onartzeko.

IV. ATALA.- PROZEDURA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA.

1. Kapitulua.- Arau orokorrak.

24. artikulua.-

Administrazio-Batzordeek euren esku dauden agiri eta espedienteak zaindu, antolatu, sailkatu eta katalogatu behar izango dituzte.

Fede-emailearen ardura izango da agiri horiek zaintzea.

25. artikulua.-

Espediente administratiboa honako hau da: erabaki administratibo bat hartu ahal izateko aurrekari eta oinarri diren agiri eta ekintzen multzo antolatua, bai eta erabaki hori betearazteko egindako biderapen guztiak ere.

Espediente horiek Fede-emailearen ardurapean osatu behar dira, haietan egon beharreko agiri, froga, ebazpen, dekretu, erabaki, jakinarazpen eta gainerako biderapenak banan-banan pilatuz.

26. artikulua.- Interesatuak.

Espediente administratibo batez interesatuta daudenek edozein unetan biderapena zertan den jakiteko eskubidea daukate, eta horretarako Fede-emaileari eskatu beharko dizkiote argitasunak.

27. artikulua.-

Espediente batean lantzen ari den gaiaz interesa dutela frogatzen duten pertsona natural edo juridikoek bertan agertu ahal izango dute, behin-betiko erabakirik hartzen ez den bitartean.

28. artikulua.-

Interesatuak nahi dutenean ezetsi edo errefusatu ahal izango dute espedientea bideratzen ari den funtzionario edo karguduna, administrazio-prozedura arautzen duten legeetan aipatuta dauden arrazoiengatik.

29. artikulua.- Jakinarazpenak.

Haien eskubide edo interesetan eragina duten erabakien berri jakinarazi behar zaie interesatuei, eta horretarako erregimen amankomuneko administrazio prozedurako arauetan aipatuta dauden bideak erabili ahal izango dira.

Idatzizko jakinarazpenetan ekintzaren edo erabakiaren testu osoa jaso behar da, administrazio-bidean behin betikoa ote den zehaztuz, eta, hala dagokionean, argi adierazi behar da zein errekurso aurkez daitezkeen haien kontra, zein organuri eta zein epetan aurkeztu behar zaizkion errekurso horiek, interesatuek nahi duten beste edozein egin ahal izatearen kalterik gabe.

2. Kapituluak.- Batzar-agiriak eta liburuak.

30. artikulua.-

Batzar Irekietan zein Itxietan ere, Fede-emaileak arduratu behar du Akta-Liburuaz. Akta-Liburuak zenbakituta eta enkoadernatuta egon behar du, orri bakoitza Batzarburuaren izenpeaz eta erakundearen zigiluaz legezatu behar da, lehen orrian aditzera emanez, Fede-emaileak izenpetutako irekierarekin, zenbat orri diren eta erabakiak zein egunetan inskribatzen hasi ziren.

Aurreko puntuan esandakoa gora-behera, aktak transkribatzeko bide mekanikoak ere erabili ahal dira, Batzarrak hori erabakitzen badu.

Kasu horretan, Batzarburuak eta Fede-emaileak arduratu behar dute orri solte guzti-guztien segurtasunaz eta garantiaz, eta debekatuta egongo da haien hurrenkera eta edukina ezertan ere aldatzea.

Orri solteak enkoadernatu behar dira Akta-Liburu bat osatzeko adina daudenean.

31. artikulua.-

Bilera batera joan diren Administrazio-Batzordeko partaide guztiek izenpetu behar dituzte batzar-agiri edo aktak, ondorengo zortzi egunen barruan; norbaiten izenperik ez egoteak ez dio inolako erantzunkizunik kentzen izenpetu ez duen kideari, horrelakorik gertatuz gero.

Bilerara joan diren beste partaideek hamar eguneko epea izango dute ekintza aztertzeko, hala nahi badute, eta haiei buruzko ezadostasunak edo erreparoak adierazteko.

32. artikulua.-

Liburuetan erabakiak jaso behar dira, lehenago aditzera emanez bilkura bakoitzaren lekua eta data, Batzarra zenbat kidek osatzen duten, Batzarburuaren eta bilerako partaideen izena, aztertutako gaiak, egindako bozketak, haien emaitzak, hartutako erabakiak eta bilera zein ordutan amaitu den.

Akta-Liburuan jaso ez diren erabakiek ez dute inolako baliorik edukiko.

33. artikulua.- Ziurtagiriak.

Herri-Batzarren ekintza, erabaki eta ebazpenen ziurtagiriak Fede-emaileak osatu behar ditu, Batzarburuaren aginduz, eta erakundearen zigilua eduki behar dute.

3. Kapitulua.- Ordenantza eta arautegiaren publizitatea.

34. artikulua.-

Herri-Batzarrek onartu eta idatzitako Ordenantza eta Arautegiak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eman behar dira argitara, eta haien behin-betiko testua osorik argitaratu arte ez dira indarrean sartuko.

V. ATALA.- HERRI-BATZARRAREN OGASUNA.

35. artikulua.-

1.- Herri-Batzarren Ogasunak honako dirubideak edukiko ditu:

- a) Haien ondaretik eta Zuzenbide Pribatutik jasotako sarrerak.
- b) Zerbitzuak eman edo haien eskumeneko ekintzak egiteagatik kobratzen diren tasak.
- c) Obrak egiteko edo Batzarren eskumeneko zerbitzuak ematen hasi, zabaldu edo hobetzeko, auzokideek ematen duten dirua eta egiten dituzten ordainketa bereziak.
- d) Prezio publikoak.
- e) Foru arauak diotenaren arabera Herri-Batzarren ogasunek beste erakunde publikoen - eta bereziki haien barrutiko udalen- zergetan eduki ditzaketan partaidetza eta errekarguak.
- f) Dirulaguntzak.
- g) Kreditu-eragiketen ondorengoak.
- h) Beren eskumeneko barrutian ipintzen dituzten isun eta zigorren ondorengoak.
- i) Udal ondasunen ondorengo sarreretan eduki ditzaketan partaidetzak.
- j) Zuzenbide Publikoko beste prestazioak.
- k) Haien eginkizunak bete ahal izateko dauzkaten eskumenen finantziazioan laguntzearen Foru Aldundiak ematen dituen diru-kopuruak. Diru-kopuru horiek Itun Ekonomikoaren 45 eta 46. artikuluei jarraituz emango dira Herri Erakundearen babes finantziarirako eta hitzartu gabeko zergengatik jasotzen diren diru-sarreretan eduki behar duten partaidetzarako.

2.- Herri-Batzarrek auzolana egitera behartu ahal izango ditu auzokideak, foru arauak eta batzarren arauak diotena beteaz. Auzolanean zuzenean edo ordezkariaren baten bidez parte hartzen ez duenak halako tasa bat ordaindu behar izango du, batzarren ordenantzen arabera, eta tasa hori premiabidez kobratu ahal izango da.

36. artikulua.-

Zuzenbide Pribatuko dirusarrerak honako hauek izango dira:

- a) Indarrean dauden legeen arabera, Ogasunarenak diren edozein eratako ondasun edo eskubideen emaitzak, errentak edo interesak, bai eta ondasun eta eskubide horiek besterenganatu edo zergapetzeak eragindako dirusarrerak.
- b) Auzo-ondasunen aprobetxamenduak eragindako dirusarrerak.
- c) Partikularrek egin eta Batzarrak onartutako edozein donazio, heredentzia edo legatu.

37. artikulua.-

Ondare izaera daukaten ondasun eta eskubideak besterenganatu eta zergapetzeak eragindako dirusarrerak ezingo dira ohiko gastuetan erabili.

Herri-Batzarrek obrak egiteko jasotzen dituzten dirulaguntzak ezingo dira erabili beste era bateko helburuetarako.

38. artikulua.-

Herri-Batzarrek ondasun higiezinaren zergaren kuotari errekarua ipini ahal izango diote, aldi baterako, honakoa egiteko:

- a) Herrian, nekazaritzan edo abeltzaintzan obrak edo hobekuntzak egiteko.
- b) Obra eta zerbitzu orokorrak ordaintzeko.
- c) Aurreko helburuak betetzearren erakundeak berak hitzartutako mailegu edo enprestituen amortizazio eta korrituak ordaintzeko.

Aldi baterako errekaruak ipiniz gero, ezingo da kontribuzio berezirik agindu zergagai eta helburu bereberekin.

39. artikulua.-

Arabako Lurralde Historikoaren Ogasun Lokalak araupetzen dituen Foru Arauaren II. Atalak dioena eta arau hori garatzen duten xedapenak ere bete behar dituzte Herri-Batzarrek ogasunek, kasu bakoitzerako egin beharreko moldapenekin; hortaz, tasak, kontribuzio bereziak eta prezioak ipini eta esijitu ditzakete.

40. artikulua.-

Arabako erakunde lokal txikien urteko diru-mugimenduak eredu ofizialaren arabera egin eta behar bezala bete behar den Kontu Liburu batean jaso behar dira.

Kontu horietan urtero urtarrilaren lehenetik abenduaren hogeita hamaikara arte gertatzen diren dirusarrera eta gastu guztiak jaso behar dira.

Urteko kontuak hurrengo urteko martxoan onartu behar ditu Herri-Batzarrak, eta gero hamabost eguneko epea utzi beharko dute, kontuak ikusgai utzi eta jendeak erreklamazioak

egin ahal izateko; horretarako, dagokion iragarkia ipini beharko da aldez aurretik batzargelan edota horretarako aukeratu ohi den lekuan.

Zilegizko interesatuek epe horretan egiten dituzten erreklamazioei bakarrik erantzungo zaie; Batzarrak berak hartu behar du erreklamazioei buruzko erabakia.

Hurrengo maiatzeko lehenaren aurretik, urteko kontuen eta haien kontra, nahiz haien ebazpenen kontra egindako erreklamazioen kopia bidali beharko zaio Arabako Foru Aldundiari.

Kontu liburuak eta aurrezki libretak Fede-emaileak berak edota, bestela, Diruzainak zaindu beharko ditu.

Aurrezki libretak erakundearen izenean egon beharko dute, eta haietan dagoen diru-kopurua erabili ahal izateko gutxienez hauen izenpea beharko da: Batzarburuarena eta fede-emailearena edo, bestela, Diruzainarena.

VI. ATALA.- ONDASUNEN ERREGIMENA.

41. artikulua.

- 1.- Herri-Batzarren ondarea haien ondasun, eskubide eta ekintzez osatuta dago.
- 2.- Herri-Batzarren ondasunak bi eratakoak izan daitezke: jabetza publikokoak eta patrimonial edo ondarezkoak.
- 3.- Jabetza publikoko ondasun dira erabilera publikoa dutenak. Auzo-ondasun dira, aldiz, Herri-Batzarrarenak eta auzokide guztien jabetzakoak direnak.
- 4.- Ondarezko ondasun dira Batzarrarenak izan arren erabilera publikokoak edo amankomunekoak ez direnak eta inolako zerbitzu publiko bati atxekituta ez daudenak.

42. artikulua.-

Legeria orokorrari jarraituz, Herri-Batzarrek beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egin behar dute, edozein eratakoak eta edozein modutan eskuratutakoak izanik.

Foru Aldundiak berak eskainiko ditu inbentarioak egiteko behar diren bitarte guztiak.

43. artikulua.-

1.- Nekazaritza alorreko ondasun higiezinak, ondarezko ondasuna, auzo-aprobetxamenduak, auzo-lurren goldaketa eta egur-loteen banaketa suen arabera egin behar dira, eta horretarako honako baldintzak bete behar dituzte haien titularrek:

- a) Adinez nagusi, adingutxiko emantzipatu edo epaibidez gaitua izatea.
- b) Urtebete gutxienez eramatea Batzarraren biztanle-errolan inskribaturik.
- c) Sua osatzen duten partaide guztiek Herri-Batzarrak agindutako kanon, ordainerazpen eta auzolanak beteta edukitzea.
- d) Beraiek zuzenean erabili eta baliatzea.

2.- Artikulu honetako aurreko zenbakian adierazitakoaren kalterik gabe, mendiei buruzko Foru Arautegian jasotako ustiapenak Herri-Batzarretako dagozkien Ordenantzen eta Mendiei buruzko Foru Arauaren arabera egingo dira.

3.- Ondarezko beraien nahiz gainerako ondasunen aprobetxamendua enkante publikoan esleitu behar da, Udalbatzarren Ondasunei buruzko Arautegiak dioen bezala; auzokideek tanteo-eskubideaz baliatu ahal izango dute esleipena egin eta hurrengo bost egunen barruan, esleipenean adierazitako baldintza eta diru-kopuru berberarekin. Tanteoan auzokide batek baino gehiagok parte hartzen badute, tanteoa zozketa bidez degingo da, ohizko bideari jarraituz.

44. artikulua.-

Herri-Batzarrek ahalmena dute auzolanak agintzeko, eta dagokion ordenantza onartu beharko dute horretarako.

Auzolana agintzen duten herri-batzarrek horretan parte hartzen duten auzokideak babesteko neurriak hartu behar dituzte, istripu arriskuak eta haren ondorioak estaltzen dituen aseguru baten bidez.

VII. ATALA.- BESTE ERAKUNDE LOKALEKIKO HARREMANAK.-

45. artikulua.-

1.- Herri-Batzarrek eta beste erakunde lokalek dauzkaten harremanetan elkarrentzako informazioa, lankidetzeta eta norberaren eskumen-esparruarekiko errespetua ziurtatu beharko dituzte.

2.- Udalerrien eta herri-batzarren artean, edota azken hauen artean eskumen-gatazkarik gertatuz gero, Foru Aldundiak hartu beharko du erabakia, dagozkion sailei entzun ondoren, erregimen lokalari buruzko legeria orokorrean adierazitakoaren barruan.

VIII. ATALA.- HERRI-BATZARREN ERAKETA, ALDAKETA ETA IRAUNGIPENA.-

1. Kapituluua.- Herri-Batzar berrien eraketa.-

46. artikulua.-

Udalerrien barruan ezaugarri bereziak dauzkaten bizigune banatuek Herri-Batzarra osatu ahal izango dute hurrengo artikuluan jarritako moduan.

47. artikulua.-

1.- Herri-Batzar berriak osatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Herrian gutxienez lau su egotea.

b) Erakundearen barrutian bizi diren auzokideen hirutik bik idatzizko eskaria egitea.

Eskari horretan zehatz-mehatz azaldu beharko da ordura arte nola betetzen diren gutxienezko zerbitzu publikoak bizigune horretan, bai eta ere zer-nola dauden horretarako dauden azpiegiturak. Orobat, atxekiko diren ondasun eta eskuarte materialen zerrenda ere erantsi behar da, eta ondo frogatu bere eskumeneko zerbitzu publikoak bete ahal izateko adina baliabide daudela.

Horretarako, Foru Aldundiak nahi dituen ikerketa, azterlan eta ziurtapen guztiak eta behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango du.

- c) Hogeita hamar egunez auzokideentzat jakingai jartzea.
- d) Dagokion udalaren iritzi-txostena, bai eta prozesu horren eragina jasotzen duten batzar guztiena ere; horretarako, hogeita hamar eguneko epea egongo da, eta epe hori iraganez gero aldeko iritzia eman dutela ulertuko da.
- e) Foru Aldundiak ere iritzi-txostena osatu beharko du, zeinek Arabako Biltzar Nagusiei porposatu beharko die dagokion Foru Araugaia.
- f) Herri-Batzar berriaren eraketari buruzko Foru Araua Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- g) Arabako Erakunde Lokalen erroldan inskribatzea.
- h) Sustrai historikoak edukitzea eta arau hau onartzen den momentuan indarrean dagoen herrien izendegian sartuta egotea.

2.- Administrazio-espediterearen arabera Herri-Batzar berria sortu ezin bada Foru Arau honek dioena betetzen ez delako, Foru Aldundiak ezezkoa emango dio Herri-Batzar berria osatzeko eskariari, eta horrela amaituko da administrazio-bidea, ondoren Biltzar Nagusietatik igaro beharrik gabe.

2. Kapitulua.- Herri-Batzarren aldaketa.

48. artikulua.-

Herri-Batzarren batean aldaketarik egin ahal izateko -beste izaera bat hartzen duelako, beste Herri-Batzar mugakide bat edo Herri-Batzar baten zati bat banatzen delako, autonomoki funtzionatzeko edo beste baten barruan sartzeko-, Herri-Batzarren eraketari buruzko puntuan adierazitako biderapen eta prozedurak bete behar dira; orobat, dagokion Foru Araugaia proposatu beharko da.

3. Kapitulua.- Herri-Batzarrak iraungi edo desegitea.

49. artikulua.-

Herri-Batzarren bat desegin edo iraungitzeko, dagokion Foru Araua osatu beharko da.

Herri-Batzarren bat desegin edo iraungitzeko espeditentea honela hasi ahal izango da:

- a) Erakundearen berak eskatuta, Foru Arau honetan bertan herri-batzarren eraketari buruzko zatian ipinitako baldintzak beteaz.

b) Organu desjabetzaile baten ekimenez, lurrak desjabetzearen ondorioz halako bizigune bat eta bertako biztanleak lekuz aldatu behar badute, beti ere kasu horrterako arautegi bereziak dioena beteaz.

50. artikulua.-

Baldin eta Administrazio-Batzorderako hauteskundeak egin eta gero, aginte eta administrazio sailak bete gabe geratzen badira, Foru Aldundiak gestio-batzorde bat izendatu, eta honek hauteskundeak egiteko deia egin ahal izango du urtebete igaro ondoren. Horiek egin eta gero, edota beti ere ohiko deialdian, batzarreko karguak bete gabe geratzen badira, orduan Foru Aldundiak Herri-Batzarra aldatu edo desegiteko espedienteari ekin ahal izango dio.

51. artikulua.-

Herri-Batzarrak desegin edo iraungitzeko Foru Araugaian lehenagoko erakundearen oinordetza-erregimena erabaki beharko du, horren beharrik egonez gero.

Herri-Batzarren bat desegin eta beste berri bat sortzen ez den kasuetan, desegindako herri-batzarraren agiri, liburu eta arxibu administratiboak Lurralde Historikoaren ardurapera igaroko dira.

Desegindako erakundearen zerbitzuko langileak iraungipena burutzean dagokion egoera legalean geratuko dira.

52. artikulua.-

Desegindako herri-batzarraren oinordetza jasotzen duen entitateak, eskuratzen dituen ondasun eta eskubideei dagokienez, ordenantza berezi bat osatu beharko du, desegindako herri-batzarraren barrutiko auzokideen ondasun eta eskubideak jasota eta errespetatuta gera daitezen berak eskuratzen dituen ondasun eta eskubideetan.

Eskubide horiek kontserbatzen diren bitartean, ahal den neurrian, oinordetza jasotzen duen entitateak eskuratutako era guztietako ondasunak osorik kontserbatu beharko ditu, Herri-Batzarra berriro osatuz gero ondasun horiek berreskuratzerik izan dezan.

Herri-Batzarre bat auzokiderik gabe geratzen delako 49. artikuluan adierazitako espedientea bideratzen ez den kasuan, Arabako Foru Aldundia arduratuko da ondasunen kontserbatzioaz eta kudeaketaz Herri-Batzarra berriz osatu arte.

Aurreko zatian araututako kasuetan, Arabako Foru Aldundiak ardura hartuko du 6 urtez, berriz osatutako Herri-Batzarrera itzultzen direnetik kontatuta, ondasunak beren jatorrizko helbururako erabil daitezen

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Arabako Talde edo Koadrilek herri-batzarrekin koordinatzeko batzorde berezia osatu beharko dute.

Udalek ere beraien barrutiko herri-batzarrekin koordinatu eta haiekiko harremanetan egoteko sistema osagarri bat osatzeko ahaleginak egin beharko dituzte.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Herri-batzar sortuberriek irekiak izan beharko dute, Foru Arau honetan agindutakoaren arabera.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA.

Erakunde lokalek zergalaritza itunduan duten partaidetza araupetzen duen apirilaren 19ko 8/93 Foru Araua indarrean dagoen bitartean, Foru Arau honen 36. artikuluko k) hizkiak aipatzen dituen Foru Aldundiaren diru-emateak Arabako Lurralde Historikoaren 1995erako Aurrekontuaren Beterazpenari buruzko abenduaren 24ko 24/94 Foru Arauaren 28. artikuluan adierazitako fondoaren emaitzen %1,6 izango dira.

Diru-emate horiek era honetan banatuko dira: kopuru berbera herri-batzar guztientzat, eta gainontzekoa haien eskumeneko zerbitzuen, biztanleen, baliabideen eta barruti-zabaltasunaren arabera.

Foru Aldundiari baimena ematen zaio agindu hori betetzeko egin behar diren aurrekontu-operazio guztiak egiteko.

Herri-Batzarrentzako diru baliabideak hiru hilez behin ordainduko dira berezko urtearen barruan, urtean urteko aurrekontuen partidaren arabera.

Herri-Batzarrentzako diru baliabideak hiru hilez behin ordainduko dira berezko urtearen barruan, urtean urteko aurrekontuen partidaren arabera. (Apirilaren 24ko 13/1997 Foru Arauak gehitu zaio. ALHAOko 52 zk., 1997ko maiatzaren 12ko)

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.

Herri-batzarrek Foru Arau honetan aipatutako ordenantzak onartzen ez dituzten bitartean, haien ordeztu Foru Aldundiak sei hilabeteko epean dekretatzen eta argitaratzen dituen ordenantza-ereduak aplikatu behar dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Arabako Lurralde Historikoko Herri-Batzarretako Batzarburu eta Batzarkideen Hautapenari buruzko 1984ko uztailaren 20ko Foru Arauaren 20. artikulua indargabetuta geratzen da.